



7. ERANSKINA: Albaitari baimendua edo gaitua.

Arau bidez ezarritako funtzioak gauzatzeko, agintari eskudunak izendatutako albaitaria eta, bereziki, osasun babeserako taldeen albaitaria eta ustiapeneko albaitaria. Ustiapeneko albaitaritzat joko da ustiapen baten zerbitzura, modu eksklusiboan edo ez, aldi baterako edo betirako, dagoen albaitaria edo albaitaritza alorreko enpresa, ustiapeneko titularrak edo arduradunak eskatuta, albaitaritza lanbideari lotutako zerbitzuak eta lanak eskaintzen dituen.

Gipuzkoan, ABERE-ALBAITERIAK SLP elkarteko albaitari klinikoak izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoko Departamentuak lankidetzak akordioa baitu elkarte horrekin albaitaritza alorreko funtzio ofizialak gauzatzeko.